



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko urriaren 1ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko urriaren lehenean, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2024ko irailaren 26

Afitxatze eguna : 2024ko irailaren 26

5. ERABAKIA: DIRULAGUNTZA ESKAERA ZUBIALDEKO ZUBIAREN KONPONTZEKO

(7.10 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio Cerema enpresak Zubien Programaren baitan zubien diagnostikoa egin duela, eta ondorioztatu duela Zubialdeko zubiak egiturazko arazo larriak dituela eta urgentziazko lanak egin behar zaizkiola. Auzapezak oroitarazi du diagnostikoaren emaitzen berri ukan bezain laster bertatik pasatzen ziren ibilgailuen pisua 3,5 tonara mugatu zela.

Auzapezak adierazi du Zubialdeko zubiaren lanentzako aurreikusten den gastua 464 887 eurokoa dela, zergaz kanpo.

Auzapezak proposatu du ahalik eta dirulaguntza gehien eskatzea DSIL eta Frantziako Zubien Programaren baitako zubi kaltetuenen konpontzeko laguntza dispositiboan

Honako finantzamendu plana proposatu du:

GASTUEN IZAERA	ZENBATEKOA ZK	SARTZEAK	ZENBATEKOA	%
Ikerketa/Obra kudeantza	29 425 €	Zubien Programa	278 932.20 €	%60
Zubiaren konpontzea Zubi Alde	435 462 €	DSIL	92 977.40 €	%20
OROTARA	464 887 €	OROTARA, LAGUNTZA PUBLIKOEN ATALA	371 909.60 €	%80
		Funts propioak	92 977.40 €	%20
		OROTARA	464 887.00 €	%100

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, Zubialdeko zubiaren konponketa proiektua,
- **ONARTU DU**, lan horien egiteko 464 887 euroko zenbatekoa, zergaz kanpo,
- **ONARTU DU**, aurkeztu den finantzamendu plana,
- **ESKATUKO DITU**, dirulaguntzak DSIL eta Frantziako Zubien Programaren baitako zubi kaltetuenen konpontzeko laguntza dispositiboan
- **AURREIKUSIKO DITU**, Herriaren aurrekontuetan, lan horien osoki egiteko beharrezkoak diren kredituak,
- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari ekintza horren burura eramateko beharrezkoak diren neurrien hartzeko eta agiri oro izenpetzeko.

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balizko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko urriaren 1an,
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/10/4an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/10/4an.